

Desvertebrar

TXILLARDEGI



PNVko buruquide batek beste esaldi historiko horietako bat izan du joan den astean: «el euzkera es un elemento desvertebrador del pueblo vasco».

Pastorala

ADOLFO AREJITA



IGARO den igandean, Harizpe pastorala ikusten egon nintzen Muskildin. Berzaiz Jaunak egin eta zuzenduriko antzerki dotorea. Hegoaldetik goazenontzat zein zuberotar ez diren manexentzat

Diario 16

Erregearen bidaia Euskadira

Gaurko Espainia autonomia —eta hori oso ondo ulertzen dute Erregea bisitatzerakoan lurralde foraletan— oso zaila izango zen egituratzea bere garaian, erreferentzia puntutzat Koroa hartu gabe, era berean

(...)

Zentzu horretan, EAJ bezalako alderdien erantzukizunera jo behar da, eta euskal nazionalismoaren zati garantzitsua egituratzeko egitekoa ez da mugatzen soilik Euskadira.

EDITORIALA / 1991-VII-24

HEMEROTEKA



EL CORREO ESPAÑOL

Erregearen bisita dela eta

Erregearen etorrerari buruzko jarrera ere aldatu egin da, dirudienez. 1980ko arbitroarena egite horrek, honera etortzeko nahi horrek, ez du funtzionatu

Baina guk jarraituko dugu esaten pentsatzen duguna, sist-

temak gu suntsitu arren.

Sistemaren kontrakoek ere suntsitu gaituzten arren. Izan ere, Eusko Alkartasunak marko instituzionalari begirunea eta errespetua izatea agindu du,

G.GARAIOETXEA / 1991-VII-24

EL DIARIO VASCO

Aldaketa kulturala

Zer da Espainia Estatu autonomiko berri lez? Ohizko Estatu-nazioa krisian dago eta erantzuna joko arau berrietan dago.

ZULET / EL DIARIO VASCO / 91-VII-24

errezelu politikoak ditu berarekin, eta baita psikologikoak ere. Izan ere, EAJ batez ere, historikoki erosoago sentitu da aldebi-

ALBERTO SURIO / 1991-VII-24

ZUZENDARIARI

Barbera kanpora!!

Lotsak, minak eta amorruak bultzata idatzi dugu eskutitz hau. Azken egunotan Euskal Herriko Unibertsitatean gertatutako inmorala eta onartezina dela uste dugu.

Ezinezkoa da errektoretzak, unibertsitatean sortu den arazo honi horrelako irtenbidea ematea: irakasle asoziatuekin hitzegina eta konponbidea jartzeko gai izan ez bada, horren ondorioak, ikasturtea zintziliek egotea, errektoretzak berak ordaindu beharko duena da, inoiz ez ikasleok. (Irakasle asoziatuek nahikoa ordaindu dute joan den urtean.)

Ezinezkoa era berean, ikusitakoak ikusita, Barbera jaunak ikasturtea normaltasunez joan dela esatea. Guztioak dakigu Ertzaintza unibertsitatean sarzea eta ikasle irakasle talde bat jotzea ez dela normala, ez eta Goardia Juradoak zakur eta guzti kanpusean «paseatzen» ibiltzea; ez da normala uztailearen 22an hainbat eta hainbat

ikaslek ikasturtea zintziliek izatea, eta abar...

Ezinezkoa da azkenik, euskal taldeen pribilegioei buruzko gezur sorta hori entzun behar izatea behin eta berriro. Barberak komunikabide batean esandako hitz horiek ez dute, egere aldetik, bestelako erantzunik merezi.

Lotsa ematen dugu. Ikasleen jarrera, batzuen behintzat, ez da zintzua izan. Azken momentuan, larri sentitu garenean bakarrik altxa ditugu ahotsak eta sordinarekin gainera. Guk ere pagatu dugu geurea dagoeneko. Asko eta askok, interesatzen zitzen azarok, gustokoak genituen gaik edo besterik gabe ordaindu genituen ikasgaiak betirako galduta ditugu.

Batzuei ez zaie ezertxo ere ahal, kurtsioa pasatzean aski dute, (borra hor geure huts haundienetarikoa: «titulatisa»). Besteak, ordea, esan bezala, triste gaude.

Eta ez dugu inola ere onartzen gure prestakuntzan horrelako zuloa suposatzen duen «txapuzarik».

Duintasun minimoko ir-

tenbidea nahi dugu, eta orain!

Errektoretzak, unibertsitateko komunitateko goi erakundea izanik, bere esku dituzte soluzio guztiak. Horien artean noski, eta batez ere, irakasle asoziatuen arazoa behin betirako konpontzea.

Injustizi hori konpontzen denean, orduan egingo ditugu hain beharrezko zaizkigun azterketak.

4. IKASTURTEKO, EUSKAL ADARREKO IKASLE TALDE BAT LEIOA

Oharra:

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makina: idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun luzeetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidetik eta NANren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, zuzendaritzak bere esku izango du horretarako eskubidea.

PERTSONAIA



Jose Maria Gorodo

Gorodo politikaz ez ahal zera oharatu PNVtik kanpo zuek ezin jokatu desertore izatea zaizu debekatu alderdiaren aurka nola egin pekatu diktadura horretan nahita zinan sartu.

EUSEBIO LASARTE

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JOAN MARI TORREALDAI

Zuzendariordeak: NEREA AZURMENDI LUZUEN ETXEZAHARRETA IÑAKI URIA

Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE

Publizitatea: KORNELIO ROTETA

Gerentea: INMA GOMILA

Egunkaria

HELBIDEAK

Egoitza soziala, Pulizitate eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57 Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabiloak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93 Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73 Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77 Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60 Lapurdi / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2. Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11

Batzorde Parekidea: 72564 E lege Gordailua: SS 80090